

2022. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239.zk.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek ordenantza honen arabera ezarri eta eskatzen du udalerri osoan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko 7/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. IZAERA ETA ZERGA EGITATEA

2. artikulua.

1.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga zuzeneko tributua da eta bide publikoetatik zehar ibiltzeko gai diren edozein mota zein kategoriatako trakzio mekanikozko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen ditu, Zirkulazio Baimenean agertzen den helbidea udalerri honetakoa denean.

2.- Zerga egitatea izango da bide publikoetan ibiltzekoak diren trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna, ibilgailua edozein klase edo kategoriatakoa izanda ere.

3.- Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat ulertuko da, dagokion erregistro publikoan matrikulatua izan dena, beti ere erregistroetan bazarik eman ez bada. Zerga honen ondorioetarako, zirkulaziorako moduko ibilgailutzat hartuko dira aldi baterako baimenak eta matrikula turistikoak dauzkaten ibilgailuak.

III. ZERGA ORDAINDU BEHAR EZ IZATEA

3. artikulua.

Ez dute zerga ordaindu behar izango:

- a) Modeloaren antzintasuna dela- eta erregistroan baja emandako ibilgailuak izanda, salbuespenez zirkulatzeko baimena izan dezaketen ibilgailuak, mota horretako ibilgailuetarako baino ez diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketetan parte hartzeko.
- b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdi-atoiak, karga erabilgarria 750 kg.tik gorakoa ez bada.

IV. SALBUESPENAK

4. artikulua.

Zerga ordaintzetik **salbuetsita** daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Lurralde Historikoaren eta tokiko erakundeen ibilgailu ofizialak, herritarren defentsarako edo segurtasunerako badira.

b) Ordezkarri diplomatikoen, kontsulatueta bulegoeta, diplomazia agenteen eta kontsulatuko funtzionarioen ibilgailuak, betiere, horrela direla egiaztatuta. Kasuan kasuko herrialdeetakoak izango dira, kanpotik identifikatuak eta elkarrekikotasun-baldintzapean hedaduran eta graduan.

Era berean, Espainiako estatuan egoitza edo bulegoa daukaten nazioarteko erakundeen eta haien funtzionarioen edo diplomazia-estatutua daukaten kideen ibilgailuak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntasunarekin lotura zuzena daukaten gainerako ibilgailuak, edo arauetan ezarritakoak diren erakunde antzekoen ibilgailuak.

e) Mugitzeko eragozpenak daukaten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak (horrela direla joko da, horien pisu hila 350 kg.-tik gorakoa ez denean, eta ibilgailuaren sorrerako baldintzen arabera, zelaian, 45 km/or. baino abiadura handiagoa hartzen ez duenean, eta bereziki, ezgaitasun edo disfuntzio fisikoa lukeen pertsonaren erabilerarako proiektatua eta egina izatea –eta ez soilik egokitua–).

Era berean, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baino ez direnak. Salbuespen hori, inguruabar horiek mantentzen diren heinean aplikatuko zaie, minusbaliotasuna duen pertsonak gidatutako ibilgailuei, zein horien garraiora erabiltzen direnei.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko horien onuradun diren subjektu pasiboak ibilgailu batengatik baino gehiagorengatik aldi berean.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:

a') %33 - 65 bitarteko minusbaliadun gradua onartuta daukatela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbaliadun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II.

eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago daukatenak.

b') %65eko minusbaliadun gradua edo handiagoa daukaten pertsonak

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko II. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Eskariarekin batera dokumentu zehatz hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Minusbaliadun gradua edo, kasuan, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukala egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emandakoa. Ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko- fakultatiboaren kopiaekin.
- Minusbaliaduna bera gidaria ez denean, ibilgailuaren gidaria nor den edo nor izango den adierazi beharko du, eta bere gida baimenaren fotokopia aurkeztu.
- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliadunak baino ez duela erabiliko adierazten duena eta ibilgailua zertarako erabiltzen den frogatu.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritza ikuskapenaren txartela duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak

e) eta g) salbuespenak aplikatzeko, interesdunek eskari normalizatua, eskatzailearen IFZren kopia, ibilgailuaren fitxa teknikoa, gidabaimenaren kopia eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Dagoeneko erroldan dauden ibilgailuen kasuan, salbuespena eskatzeko epea urtarilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da. Zergaren sortzapen egunean salbuespen-baldintzak betetzen badira eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta badaude, salbuespena urteko erroldan bertan aplikatuko da. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaeren kasuan, onartutako salbuespenak ondorioak izango ditu eskaeraren hurrengo ekitaldian, atzera eraginik gabe.

Ibilgailu berrien kasuan, eskabidea matrikulazio datatik 10 eguneko epean aurkezten bada, eta, nolanahi ere, zergaren sortzapen egunean salbuespen-baldintzak betetzen badira, salbuespena onartu egingo da, eta autolikidazio bidezko ordainketa itzuli egingo, behin betiko likidazioaren bidez.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira tributuen Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisikoak edo juridikoak; horretarako, horien izenean egon behar du ibilgailu zirkulazioko baimenak.

Urte bakoitzean sei hilabetetik gora atzerrian bizi diren subjektu pasiboek Espainiako lurraldean helbideratutako ordezkari bat izendatu beharko dute, udal ogasunarekin izan ditzaketen hartu-emanetarako.

VI. TRIBUTU KUOTA

6. artikulua.

1.- Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da zerga:

	2022 (€)
A) Turismoak:	
8 zerga-zaldi baino gutxiago	26,94
8-11,99 zerga-zaldi	72,76
12-13,99 zerga-zaldi	128,33
14-15,99 zerga-zaldi	179,66
16-19,99 zerga-zaldi	231,00
20 zerga-zaldi baino gehiago	282,32
B) Autobusak:	
21 plazatik beherakoak	177,87
21 plazatik 50era bitartekoak	253,33
50 plazatik aurrerakoak	316,66
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	90,29
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	177,87
3.000 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	253,33
9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	316,66
D) Traktoreak:	
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	37,73
16-25 zerga-zaldi bitartekoak	59,29
25 zerga-zaldirik gorakoak	177,87
E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak:	
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	37,73
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	59,29

2.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	177,87
F) Gainerako ibilgailuak:	
125 z.k.rainoko motozikletak	10,71
125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak	16,97
250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak	32,35
500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak	75,03
1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak	144,87

2. Ibilgailu mota zehazteko, arauetan ezarritakoa bete beharko da, eta arau hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, hainbat jesarleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokalekua aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu barik.

Furgonetengatik turismoen moduan ordainduko da zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barru, garraiatzeko gaituta badago, zerga autobusa balitz bezala ordainduko du.
 - Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, zerga kamioien moduan ordainduko du.
- b) Zerga honen ondorioetarako, moto-gurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da zerga.
- c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, zergak aldi berean eta berezita kargatuko ditu arraste- indarra daukan ibilgailuak eta hark herrestan daramatzan atoiak eta erdi atoiak.
- d) Edukiera dela- eta matrikulatu beharrik ez daukaten ziklomotorrak, atoiak eta erdi-atoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkultzen hasten denetik, kasuan kasu.
- e) Makina autopropulsatuengatik, berriz, trakzio mekanikodun beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman barik bide publikotik ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifak kobratuko dira.

Edozelan be, esandako tarifen D hizkiko "traktoreak" izendapenaren barruan, "trakto-kamioiak" eta "obra eta zerbitzuetako traktoreak" sartzen dira.

- f) Quad-ek, beren ezaugarri teknikoen arabera, automobil, ibilgailu berezi edo motor-bizikletak bezala ordainduko dute.
- g) Auto karabanek turismo moduan tributatuko dute.
- h) Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamenduaren 11.20 artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

VII. HOBARIAK

7. artikulua.

Zerga kuotaren **hobari** hauek aplikatuko dira:

a) Familia ugaria tituludun kide baten titularitateko bost plaza edo gehiagoko ibilgailuari:

- Kategoria orokorreko familia ugariko kideari: **% 50ko hobaria**
- Kategoria bereziko familia ugariko kideari: **% 75eko hobaria**

Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako familia ugariaren titulua aurkeztu beharko da. Hobaria aplikatu ahal izateko, titulua zergaren sortzapen egunean indarrean egon beharko da eta familiaren kide guztiak Bermeoko ohiko etxebizitzan erroldatuta egon beharko dira.

b) Kuotaren **%75eko hobaria** edukiko dute motor elektrikoko edota isuri bako ibilgailuak.

c) Kuotaren **%35eko hobaria** motor hibridoa daukaten ibilgailuak edo erregaitzat gas naturala edo petroliotik likidotutako gasak erabiltzen dituzten ibilgailuak, eskaera datatik lau urtetan.

d) Kuotaren **%100eko hobaria** izango dute indarrean dagoen Ibilgailu Historikoen Araudiaren arabera historiko gisa sailkatuta dauden ibilgailuek, betiere, horrela agertzen badira Trafikoko Probintzia Buruzagitzako Ibilgailu Historikoen Erregistroan.

Ibilgailua historikoa dela egiaztatzeko, horretarako eskumena duen administrazioak egindako dokumentua eta Ibilgailu Historikoen Erregistroko inskripzioa frogatu beharko da.

Atal honetako hobariak elkarren artean bateraezinak dira.

Hobariak aplikatzeko, interesdunek eskari normalizatua, eskatzailearen IFZren kopia, ibilgailuaren fitxa teknikoa, gidabaimenaren kopia eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Dagoeneko erroldan dauden ibilgailuen kasuan, hobaria eskatzeko epea urtarilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da. Zergaren sortzapen egunean hobari-baldintzak betetzen badira eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta badaude, hobaria urteko erroldan bertan aplikatuko da. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaeren kasuan, onartutako hobariak ondorioak izango ditu eskaeraren hurrengo ekitaldian, atzera eraginik gabe.

Ibilgailu berrien kasuan, eskabidea matrikulazio datatik 10 eguneko epean aurkezten bada, eta, nolanahi ere, zergaren sortzapen egunean hobari-baldintzak betetzen badira, hobaria onartu egingo da, eta autolikidazio bidezko ordainketa proportzionala itzuli egingo, behin betiko likidazioaren bidez.

Subjektu pasiboak hobarien baldintzen inguruko aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu, eta administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du hobariak ezartzeko beharrezko baldintzak betetzen direla. Hobaria bidegabe aplikatu dela egiaztatzen bada, likidazio osagarriak, berandutze interesekin, igorriko dira, tributu-arloko arau-haustea izateagatik dagokion zehapenaz gain.

VIII. ZERGALDIA

8. artikulua.

1- Zergaldia bat dator urte naturalekin, ibilgailua lehenengoz erosten denean edo baja ematen denean izan ezik. Kasu horietan, ibilgailua erosten den egunean edo bajea Trafikoko Buruzagitzan ematen den egunean hasiko da zergaldia, hurrenez hurren.

2- Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3- Zergaren kuotaren zenbatekoa hile naturalen arabera hainbanatuko da, ibilgailuaren lehenengo eskuraketaren edo behin betiko bajaren kasuetan, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hilea ere kontuan hartuko da.

Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagatik ibilgailuari aldi baterako baja ematen bazaio, haren kuota aurrerago azaldutako moduan hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja gertatzen den unetik.

IX. KUDEAKETA

9. artikulua.

1- Ibilgailuaren zirkulazioko baimenean Bermeoko helbidea daukaten ibilgailuak izango dira udalari dagozkion zergen kudeaketan emaniko datuen kudeaketa, kitapena, bilketa eta berrikuspenaren objektuak.

2- Ibilgailuen errolda Trafikoko Buruzagitza edota ibilgailuen titularrek eurek emandako datuekin eguneratuko da urteko errolda fiskalaren oinarria izan dadin.

3- Udalerriko helbideei buruz egon daitezkeen arazo edota datu ezberdinentzako irtenbidea *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzako* 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa izango da.

4- Urteko lehenengo egunean ibilgailuen erroldan dauden ibilgailuen zerga erroldako erreiboaz kitatuko da urteko tributuen egutegiaren arabera.

5- Baja kasuan, behin urteko zerga ordainduta, 6. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoen hainbanaketa egingo da eta itzuli beharrekoa itzuliko da.

10. artikulua.

1- Ibilgailua lehenengoz erosten denean, Trafikoko Buruzagitza matrikulatu aurretik, zerga autolikidazio bidez ordainduko da ordenantzako 7. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoen hainbanaketa eginda.

2- Autolikidaziorako agiri hauek aurkeztuko dira Berh@z bulegoan:

- a) Gidatzeko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztagiria.
- c) NAN edo IFK.

3- Autolikidazioaren zergaren zenbatekoa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da. Epean ez ordaintzeak Derrigorrezko Bilketako prozeduraren arabera kobratzea ekarriko du.

11. artikulua.

Aitorpen-kitapenak egiaztatu beharko dira eta behin behineko izaera izango dute behin betiko kitapeneko kuotaren kontura egindako ordainketak kontuan hartuta.

12. artikulua.

Udal administrazioak zergaren kitapena egiteko beharrezkoak diren beste dokumentu batzuk eskatu ahalko dizkie interesdunei 30 eguneko epean emateko, interesdunak eskatuta epea beste 15 egunetan luza daitekeena. Dokumentu horiek aitorpena egiaztatu eta kitapena behin betiko ezartzeko beharrezkoak direnez, egindako eskakizunei aipatutako epeen barruan kasu egiten ez dietenek dagozkien zerga-urraketa eta zigorrei aurre egin beharko diete. Agiri horiek interesdunak bere onurarako frogatzeko bidea besterik ez badira, errekerimendua ez betetzearen ondorioa izango da kitapena bidaltzea, alegaturiko eta ez justifikaturiko egoerak kontuan hartu gabe.

13. artikulua.

Egiaztapen egokiak eginda, behin betiko kuota behin behinean ordaindutakoa baino txikiago zein handiagoa balitz, udal administrazioak zergadunei behin betiko kitapena oso-osorik jakinaraziko die, ordaintzeko epeak eta bidezko helegiteak adierazita.

14. artikulua.

1.- Udalak adierazitako epean aitorpen-likidaziorik egin ez duten zergapeko egitateak atzemango balitu, interesdunei aitorpen-likidazioa egiteko aginduko die, eragindako zerga arau-hausteei eta, hala badagokio, sortzen diren zigorrei kalterik egin gabe.

2.- Nolanahi ere, ofizioz espedienteak ireki ahal izango du udal administrazioak bere esku dagoen informazioarekin, dagokion behin-behineko, osagarri edo behin betiko likidazioa igorrita, ordaintzeko epeak eta jar daitezkeen errekursoak zeintzuk diren adierazita, aplikatu daitezkeen zigorrak eta arau-hausteen kalte barik.